

Ezkondu gabeko bikote egonkorren erregistroaren antolataketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza behin betikoz onetsirik

Udalak ondoko erabakia hartu zuen, 2001eko urriaren 25ean egin bilkuran:

1.-Ezkondu gabeko bikote egonkorren erregistroaren antolataketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza behin betikoz onestea.

2.-Ordenantza hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratzea eta Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioiko Departamentura igortzea.

Beran, bi mila eta bateko azaroaren hamahiruan. Alkatea, J. Goia Etxeberria.

ERANSKINA

Bikote egonkorren erregistroaren antolataketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza

1. artikulua. Administrazio izaera.

Ezkondu gabeko bikote egonkorren Berako Udalaren erregistroak administrazio izaera du eta bertan ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzeak, baita haien iraungitzea ere, inskribatzen ahal dira ordenantza honetan ezartzen den eran eta baldintzetan.

2. art. Ezkontzaz kanpoko elkartzea.

Ezkontzaz kanpoko elkartzea hau da: elkartze libre eta publikoa, adin nagusiko bi lagunek edo adingabeko bi emantzipatuk osatzen dutena, zein den ere haien sexu orientazioa, senar-emazteen gisako maitasun harremana izanik, zuzenean edo albotik bigarren maila arteko odolkidetasun edo adopzio bitarteko ahaidetasun loturarik izan gabe,

Aprobación definitiva Ordenanza Reguladora de la Organización y Funcionamiento del Registro Municipal de Parejas Estables no Casadas

En la sesión que el pleno del Ayuntamiento celebró el día 25 de octubre de 2001 adoptó el siguiente acuerdo:

1. Aprobar definitivamente la Ordenanza reguladora de la Organización y Funcionamiento del Registro Municipal de Parejas Estables no Casadas.

2. Publicar esta ordenanza íntegramente en el BOLETIN OFICIAL de Navarra y remitirla al Departamento de Administración Local del Gobierno de Navarra.

Bera/Vera de Bidasoa, trece de noviembre de dos mil uno. El Alcalde, J. Goia Etxeberria.

A N E X O

Ordenanza reguladora de la organización y funcionamiento del Registro Municipal de Parejas Estables

Artículo 1.º Carácter administrativo.

El Registro Municipal de Parejas Estables no casadas del Ayuntamiento de Bera tiene carácter administrativo y en él podrán inscribirse las uniones no matrimoniales de convivencia, así como su terminación en la forma y con los requisitos que se establecen en la presente Ordenanza.

Art. 2.º Unión no matrimonial.

Se considera unión no matrimonial aquella unión libre y pública, en una relación de afectividad análoga a la conyugal, con independencia de su orientación sexual, de dos personas mayores de edad o menores emancipadas sin vínculo de parentesco por consanguinidad o adopción en línea recta o colateral hasta el segundo grado, siempre que ninguna de ella esté unida por un vínculo

baldin eta bietako inor ez badago bertze bati ezkontza bidez edo bikote egonkorra osatuz loturik.

3. art. Elkartze egonkorra.

Elkartzea egonkortzat hartuko da bikotekideak, gutienez, urtebete jarraian senar-emazteen gisa bizi izan badira. Halaber, bien arteko seme-alabarik dagoenean, orduan elkarrekin bizitzea nahikoa izanen baita, edo bikote egonkorra osatzeko nahia agiri publiko batean agertu badute.

4. art. Erregistroko inskripzioa.

Bikoteek, sexu berekoak izan edo ez, erregistroan inskribatzeko eskatzen ahal dute, baldin eta haien adostasun libre eta osoarekin ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatu badute.

Erregistratu ahal izateko, elkartze egonkorra izan beharko du, hirugarren artikuluan xedatu bezala.

Gutienez, elkartutako kide batek egon beharko du Berako udalerrian erroldatua, bertan bizi ohi delako.

Halaber, bi kideek zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ez daudela ez ezkonduak ezta inskribatuak ere ezkondu gabeko bikote egonkorren bertze erregistroren batean.

5. art. Lehenbiziko inskripzioa

Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioa egiteko, bi lagunek batera agertu beharko dute erregistroaz arduratzen den funtzionarioaren aitzinera, haien artean ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatzen dutela deklaratzeko.

Ez da inskripziorik egingen bikoteko bat emantzipatu gabeko adingabea bada, edo lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaide badira, nahiz alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunezko ahaide badira.

Bikoteko batek akats edo anomalia psikikorik

matrimonial o forme pareja estable con otra persona.

Art. 3.º Unión estable.

Se considera que la unión es estable cuando los miembros de la pareja hayan convivido maritalmente como mínimo, un período ininterrumpido de un año, salvo que tuvieran descendencia común, en cuyo caso bastará la mera convivencia, o salvo que hayan expresado su voluntad de constituir una pareja estable en documento público.

Art. 4.º Inscripción en el Registro.

Podrán instar su inscripción en el Registro todas aquellas parejas estables, independientemente de su sexo, que por su libre y pleno consentimiento hayan constituido una unión de convivencia no matrimonial.

Para acceder al registro la unión deberá tener carácter de estable conforme se dispone en el artículo tres.

Al menos uno/a de los/as miembros de la unión deberá estar empadronado/a en el municipio de Bera por su condición de residente habitual en el mismo.

Asimismo, ambos/as miembros deberán presentar declaración jurada de no estar casados/as ni inscritos/as en otro Registro de Parejas Estables no casadas.

Art. 5.º Primera inscripción.

La primera inscripción de cada pareja se producirá mediante comparecencia personal y conjunta de las dos personas ante la persona encargada del Registro, para declarar la existencia entre ellas de una unión de convivencia no matrimonial.

No se procederá a practicar inscripción alguna si alguno/a de los/las comparecientes es menor de edad no emancipado o si son entre sí parientes por consanguinidad o adopción en línea recta o por consanguinidad en segundo grado colateral.

Tampoco podrá llevarse a efecto la inscripción si

badu, orduan ere ez da inskripziorik eginen.

Horrelakoetan, medikuaren irizpena beharko du, ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatzeko gaitasuna aitortzen diona.

Era berean, inskripzioa ukatuko da, bikoteko bat ezkondua badago edo ezkontzeko gaitasun gabea deklaratu bada.

6. art. Bikoteari dagozkion argitasun eta hitzarmenak.

Lehenbiziko idazpena egitean, bikotekideek beren arteko elkarteari buruz adierazten dituen argitasun guztiak agerrarazten ahalko dituzte.

Orobat, hitzez hitz idazten ahalko dira elkartutako kideen giza eta ondare loturak arautzen dituzten hitzarmenak.

Aitzineko lerrokadan aipatutako edukiak geroago ere inskribatzen ahalko dira bikoteko biak bertara azalduz.

Nolanahi ere, elkartzea bukatu edo iraungitzeko oharpenak egiteko, aski izanen da kide bakar batek hala eskatzea.

7. art. Batera eskatutako inskripzioa.

Ezkontzaz kanpo elkartutako bi kideek batera eskaturik eginen dira inskripzio guztiak Bikote Egonkorren Udal Erregistroan, elkartzea bukatu edo iraungitzeko idazpena izan ezik, kide batek bakarrik eskaturik egiten ahal baita.

8. art. Bikote egonkorraren desegitea.

Kasu hauetan, bikote egonkorra desegintzat hartuko da:

- Kide bat ezkontzen denean.
- Bien artean hala erabakita.
- Bikoteko kide batek bere aldetik hala nahita, bertze kideari modu frogagarrian jakinarazita.

alguno/a de los/las comparecientes estuviere afectado/a por deficiencias o anomalías psíquicas.

En este caso deberá aportar dictamen médico de su aptitud para consentir en la constitución de una unión de convivencia no matrimonial.

Asimismo se denegará la inscripción si alguno/a de los/las comparecientes estuviere ligado/a por vínculo matrimonial o declarado/a incapaz para contraer matrimonio.

Art. 6.º Anotación de circunstancias y convenios relativos a la pareja.

En ese primer asiento, podrán hacerse constar cuantas circunstancias relativas a su unión manifiesten los/las comparecientes.

También podrán anotarse, mediante transcripción literal, los convenios reguladores de las relaciones personales y patrimoniales entre los/las miembros de la unión.

Los contenidos indicados en el párrafo anterior podrán ser objeto de inscripción en ulteriores comparecencias conjuntas de la pareja.

No obstante, las anotaciones que se refieran a la terminación o extinción de la unión podrán practicarse a instancia de sólo uno/a de los/las miembros de la misma.

Art. 7.º Inscripción a instancia conjunta.

Todas las inscripciones que puedan practicarse en el Registro Municipal de Parejas Estables, lo serán a instancia conjunta de los/las dos miembros de la unión no matrimonial, salvo la anotación que se refiere a la terminación o extinción de la unión que podrá practicarse a instancia de sólo uno/a de los/las miembros de la misma.

Art. 8.º Disolución de la pareja estable.

Se considerará disuelta la pareja estable en los siguientes casos:

- Por matrimonio de uno/a de sus miembros.
- Por mutuo acuerdo.
- Por voluntad unilateral de uno/a de los/las miembros de la pareja, notificada fehacientemente

-Urtebetetik gora elkarrekin bizitzeari utzita.

-Kideek eskritura publikoan adostutako kasuetan.

Aipatutako kasu guztietan, bi kideak daude behartuak Bikote Egonkorren Udal Erregistroaren arduradunari jakinarazi eta elkartzea desegiteko eskatzera. Alabaina, kide bakar batek eskatzen ahalko du elkartzea bukatu edo iraungitzeko idazpena.

9. art. Erregistroaren kokapena.

Erregistroa Udaleko Idazkaritza Orokorrean izanen da.

10. art. Erregistrorako Liburu Orokorra.

Aitzineko artikuluetan aipatzen diren inskripzioak erregistratzeko Liburu Orokorra erabiliko da.

Liburua orri mugigarri, zenbatu eta zigilatuez osatua dago, eta irekitzeko eta ixteko eginbideak paratuko dira hasieran eta bukaeran.

11. art. Oinarrizko inskripzioa.

Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioak oinarrizko inskripzioaren izaera izanen du eta horren bazterrean geroago Liburu Orokorrean elkartzeari buruz egiten den bertze edozein idazpen gerraraziko da.

12. art. Erregistrorako Liburu Lagungarria.

Erregistroak Liburu Lagungarri bat izanen du, inskribatuen deituren arabera ordenaturik, eta bertan adieraziko da Liburu Orokorreko zenbatgarren orrialdean dauden haiekin zerikusia duten oharpenak.

13. art. Publizitaterik gabeko idazpenak.

Erregistroan inskribatutakoen intimitatea, norbanakoarena nahiz familiarena, babesteko, ez zaio publizitaterik emanen idazpenen edukari, salbu eta erregistroaren ardura duen

al otro/a.

-Por cese efectivo de la convivencia por un período superior a un año.

-En los supuestos acordados por sus miembros en escritura pública.

En cualquiera de los supuestos anteriormente relacionados, ambos/as miembros están obligados/as a notificarlo e instar la disolución ante la persona encargada del Registro Municipal de parejas estables, no obstante la anotación que se refiere a la terminación o extinción de la unión, podrá practicarse a instancia de sólo uno/a de los/las miembros de la misma.

Art. 9.º Ubicación del Registro.

El Registro estará en la Secretaría General del Ayuntamiento.

Art. 10. Libro General del Registro.

El Registro se materializará en un Libro General en el que se practicarán las inscripciones a que se refieren los artículos precedentes.

El Libro estará formado por hojas móviles, foliadas y selladas, y se encabezará y terminará con las correspondientes diligencias de apertura y cierre.

Art. 11. Inscripción básica.

La primera inscripción de cada pareja tendrá el carácter de inscripción básica y al margen de la misma se anotará todo otro asiento que se produzca con posterioridad en el Libro General principal relativo a esa unión.

Art. 12. Libro Auxiliar del Registro.

El Registro tendrá también un Libro Auxiliar ordenado por apellidos de los inscritos en el que se expresará el número de las páginas del Libro General en las que existan anotaciones que les afecten.

Art. 13. No publicidad de los asientos.

Con el fin de garantizar la intimidad personal y familiar de los/las inscritos/as en el Registro no se dará publicidad alguna al contenido de los asientos, salvo las certificaciones que expida la persona

funtzionarioak egiten dituen egiaztagiriak, bikoteko edozein kidek, epaileek edo auzitegiek hala eskatu ondoren.

14. art. Erregistro doakoa.

Doakoak izanen dira, erabat, bai inskripzioak bai egiten diren ziurtagiriak.

15. art. Berdintasuna tratamenduan.

Bikote egonkorren erregistroan inskribatzen diren ezkondu gabeko bizikidetasuneko elkartzeek, ezkontza bidezko elkartzeen tratamendu bera izanen dute Berako Udalean.

I. ERANSKINA

Berako Udaletxean, halako egunean:, honako hauek agertu gara:

Izena:, jaioterria:, helbidea (eroldakoa):, adinez nagusia (edo adingabe burujabea, horren agiria aurkezten baitut) N.A.N. zenbakia:, eta izena:, jaioterria:, helbidea (eroldakoa):, adinez nagusia (edo adingabe burujabea, horren agiria aurkezten baitut) N.A.N. zenbakia:

Eta honako hau azaldu nahi dugu:

"Ezkondu gabeko bikote egonkorren" Udal honetako erregistroan inskribatu gaitzela nahi dugula, horri buruzko ordenantzaren arabera, eta horretarako,

Deklaratzen dugu:

Lehenbizi.-Aipatu ordenantzan aurreikusitako bizikidetasuna dela eta, gure helbidea honako hau izanen dela: (oroitarazi behar zaio jaun/andreari T.A.O.L.aren 15. artikuluari jarraikiz, erroldatu beharra duela ohiko bizilekuko udalerrian.)

Bigarren.-Ezkontzaz kanpoko bikote egonkorra osatzen dugula, Ezkondu gabeko bikote egonkorren erregistroaren antolatasketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantzaren

encargada del Registro a instancia exclusivamente de cualquiera de los/las miembros de la unión interesada o de los Jueces y Tribunales de Justicia.

Art. 14. Gratuidad del Registro.

Tanto las inscripciones que se practiquen, como las certificaciones que se expidan, serán totalmente gratuitas.

Art. 15. Igualdad de tratamiento.

En el Ayuntamiento de Bera, todas las uniones no matrimoniales de convivencia inscritas en el Registro Municipal de Parejas Estables recibirán el mismo tratamiento que las uniones matrimoniales.

ANEXO I

En el Ayuntamiento de Bera, el día comparecen conjuntamente:

Don/doña, natural de, con domicilio y empadronamiento en, mayor de edad (menor emancipado, según documentación que aporta) y con D.N.I. número, y don/doña, natural de, con domicilio y empadronamiento en, mayor de edad (menor emancipado, según documentación que aporta) y con D.N.I. número,

Y manifiestan:

Que desean ser inscritos/as como "pareja estable no casada" en el Registro correspondiente de ese Ayuntamiento y, conforme a la Ordenanza reguladora y a tal efecto,

Declaran:

Primero: Que como consecuencia de la convivencia prevista en dicha Ordenanza, fijan su domicilio común en en (se recuerda a don/doña la obligación de empadronarse en el municipio del domicilio más habitual de conformidad al artículo 15 L.B.R.L.).

Segundo: Que forman una unión no matrimonial estable conforme a la Ordenanza reguladora de la organización y funcionamiento del Registro Municipal de Parejas Estables.

ariora.

Hirugarren.-Gure artean ez dagoela lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaidetasunik, ez eta alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunik ere.

Laugarren.-Gutako inork ez duela akats edo anomalia psikikorik, ez eta elkartzeko inolako ezgaitasunik ere.

Borzgarren.-Ez dugula nahi/nahi dugula gure arteko giza nahiz ondare mailako harremanen gaineko hitzarmena erregistroan inskribatzea.

Seigarren.-Baimena ematen dugula Berako Udal Erroldan honako datu hauek egiaztatzeko.

Eta zin egiten dugu ez gaudela gu biok ezkontzaren bidez lotuak, ez eta gutako inor bertze inorekin ere, eta gutako inor ez dagoela inskribatua maila eta xede bereko inongo erregistrotan ere.

Horrenbertzez,

Ezkondu gabeko bikote egonkorren Berako Udaleko erregistroan inskribatu gaitzabela eskatzen dugu.

Sin.: Sin.:

II. ERANSKINA

Berako Udalean, halako egunean honako hauek agertu gara:

Izen-abizenak:, N.A.N.:, eta izen-abizenak:, N.A.N.:

Eta ezkondu gabeko bikote egonkorren Udal Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantzan zehaztutakoarekin bat, adierazten dut/dugu asmoa dudala bikote egonkorra bukatutzat edo iraungitzat jotzeko, izan ere horrelaxe inskribatua dago aipatu Udalaren erregistroan.

Horiek horrela, eskatzen dut/dugu bukatutzat edo

Tercero: Que entre los/las comparecientes no existe parentesco por consanguinidad o adopción en línea recta ni por consanguinidad hasta el segundo grado inclusive colateral.

Cuarto: Que ninguno de ellos/as está afectado por deficiencias o anomalías psíquicas ni declarado incapaz para contraer matrimonio.

Quinto: Que -no / sí- desean se anoten en el Registro convenios reguladores de relaciones personales y patrimoniales entre ellos.

Sexto: Que autorizan la comprobación de datos en el Padrón Municipal de Bera a estos efectos.

Y declaran bajo juramento que ninguno de ellos/ellas está unido/a por vínculo matrimonial ni entre los/las mismos/as ni con otras personas, ni ninguno de ellos/as está inscrito en ningún otro registro de parejas de similar contenido y objeto.

Por todo lo cual,

Solicitan sean inscritos/as en el referido Registro Municipal de parejas estables no casadas en este Ayuntamiento de Bera.

Fdo.: Fdo.:

ANEXO II

En el Ayuntamiento de Bera, el día comparecen:

on/doña, con D.N.I. número, y don/doña, con D.N.I. número

Y manifiesta/n que, de conformidad con lo previsto en la Ordenanza Municipal reguladora de la Organización y Funcionamiento del Registro Municipal de Parejas Estables no Casadas, desea dar fin o extinguir la relación de pareja estable que fue incorporada al Registro Municipal de referencia, según consta en el mismo.

Por todo lo cual, solicita/n se dé por terminada o

iraungitzat eman dezazuela elkartzearen
inskripzioa.

Sin.: Sin.:

extinguida la referida inscripción de unión.

Fdo.: Fdo.: